

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa. Onestea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneko eremuan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak**

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez 2019-2023 aldirako Arabako Foru Aldundiko sailak zehazten baitira, xedatzen duenez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eginkizunak dira, beste batzuen artean, prestakuntza eta enplegu plan eta programak antolatzea, autonomoei laguntzea, txikizkako merkataritza, turismoa eta artisautza garatu eta babestea, lanbide kualifikaziorako eta laneratzeko prestakuntza ekintzak antolatzea, LHko ikastetxeak hobetzea eta enplegu eta prestakuntza planak garatzeko lankidetzak sustatzea.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoari jarraituz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurreikusi du dekretu hau onestea, zuzendaritzaren eskumen eremuan ematen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokor gisa. Araudi honek indarrrik gabe utziko du Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumen esparruan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak; baita haren ondorengo aldaketa ere, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Xedapen orokor hau Xedapen Orokorrak egiteko Prozedura onesten duen maiatzaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretuan jasoriko arautze egokiaren printzipioei egokitzen zaie.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hemen zer xedatu den:

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumen eremuan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrei, zeinak dekretu honen eranskin ageri baitira.

Bigarrena. Indarrrik gabe uztea Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumen esparruan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak; baita haren ondorengo aldaketa ere, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 12a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*

**BELÉN GONZÁLEZ BENITO**

**ERANSKINA****ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ZUZENDARITZAREN  
DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORRAK****1. Xedea eta aplikazio eremua**

1.1. Dekretu honen xedea da oinarriak ezartzea Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak bere eskumen esparruko dirulaguntzak norgehiagoka edo lehia aske bidez emateko, erabilgarri dauden aurrekontu kredituen kargura.

Honako lerro hauetan emango dira dirulaguntzak:

- Prestakuntza eta enplegu plan eta programak.
- Prestakuntza jarduerak langileak kualifikatzeko, enplegua lortzeko eta zentroak hobetzeko.
- Enplegu eta prestakuntza planak garatzeko lankidetzaren sustatzea.
- Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubidean dauden pertsonen laguntzea.
- Txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea.
- Turismoa eta eskulangintza.
- Beste edozein dirulaguntza lerro, zuzendaritzaren eskumeneko eremuan.

1.2. Deialdi horiek arautuko dira oinarri orokor hauen, laguntzen deialdi bakoitzerako onetsitako oinarri espezifikoaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren bidez.

**2. Printzipio orokorrak**

Ematen diren dirulaguntzak honako printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.

Baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

**3. Onuradunen betekizun orokorrak**

3.1. Onuradunak joko dira dirulaguntza emateko oinarri den jardueraren egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta, 11/2016 Foru Arauaren 12.2 eta 12.3 artikuluetan ezarritako debekuen eragina ez izateaz gain, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarritako betekizunak eta inguruabarrak betetzen badituzte.

3.2. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. eta 13. artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 10. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzez gain, hauexek ere bete beharko dituzte eskatzaileek eta pertsona fisiko zein juridikoek, zuzendaritzak dirulaguntzak eman eta ordaindu aurretik:

– Egunean egotea Ogasunarekiko zerga betebeharraren eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera haiek frogatzetik salbuetsita egon ezean, bai emateko ebazpenaren bai dirulaguntza ordaintzeko unearan aurretik. Eskaera aurkezteak baimena emango dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari biltzeko Arabako Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzak eman beharreko ziurtagiriak. Beste foru aldundi edo Arabako Lurralde Historikoaz bestelako lurralde erkide bateko ogasunaren aurrean zerga betebeharrak bete behar baditu pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak edo onuradunak, zerga betebeharren eskakizunak zergak ordaintzeko betebeharra duen zerga administrazio bakoitzari egiten dio erreferentzia. Eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

– Pertsona juridikoak izanez gero, legez eraturik egon beharko dute, eta, gainera, diruz lagunduko den jarduerak haien xede edo helburu sozialekin zuzenean lotura izatea eskatuko da.

3.3. Ez dira onuradunak izango pertsona fisiko eta juridiko hauek:

– Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren adierazitako arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, bai eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren IV. titulua oinarri zehatu direnak eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen dituen kasuetan daudenak ere.

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dauzkatena, baldin eta haien helburua dirulaguntzaren xedearekin bat baldin badator, bai eta haiekin loturikoak ere.

3.4. Aurreko deialdietan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak sustatutako dirulaguntzak jaso arren diruz lagundutako proiektuak edo jarduketak gauzatu ez dituzten eskatzaileak ezingo dira izan onuradunak, salbu eta zuzendaritzaren aburuz proiektu edo jarduketa horiek ez gauzatu izanaren arrazoiak behar bezala justifikatuta dauden kasuetan.

#### **4. Izapidetze aurreratua eta urte anitzeko dirulaguntzak**

4.1. Deialdia onetsi ahal izango da hura ebatzi behar den aurrekontu ekitaldia hasi baino lehenago, baldin eta laguntza ematen den urte berean gauzatzen bada gastua, eta honako inguruabar hauetakoren bat betetzen bada:

a) Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan normalean kreditu egoki eta nahikoa egotea dirulaguntza ematearen ondoriozko gastuaren aurrekontu estaldurarako, edo

b) Kreditu egoki eta nahikoa egotea hurrengo ekitaldiko aurrekontuen proiektuan, zeinetan hartuko baita gastu konpromisoa, dirulaguntza ematea onesten duen ebazpenaren ondorioz.

Halako kasuetan, deialdian ageri den gehieneko zenbateko osoa gutxi gorabeherakoa izango da; beraz, deialdian berariaz jaso beharko da dirulaguntzak emateko baldintza izango dela kreditu egoki eta nahikoa egotea dirulaguntza ematea ebazten den unean. Azkenean onesten den aurrekontu kreditua hasieran balioetsitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak erabaki ahalko du deialdian aplikatu ala ez, ebazpenaren aurretik gastu espedientea izapidetu eta gero, beste deialdi bat onetsi behar izan gabe.

4.2. Era berean, dirulaguntzen deialdia baimendu ahalko da, baldin eta laguntzak emateko ebazpenari dagokion ekitaldiaren ondokoetan egotz daitekeen gastua badu. Kasu horretan, deialdian emango den gehieneko zenbatekoa adierazi beharko da, guztira, urterokoetan banatuta, emango diren dirulaguntzen ondoriozko gastua egitea aurreikusten den unea kontuan hartuta.

#### **5. Eskaren aurkezpena eta epea**

5.1. Deialdian adierazten den moduan aurkeztuko dira eskaerak. Aurkezteko modu hauek izan daitezke:

– Eskura emanda, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo ituna duten udalen erregistro orokorretan.

– Bide elektronikoaz baliatuta, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan, deialdian hala aurreikusten denean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako moduez ere baliatu ahalko da.

5.2. Deialdi espezifikoan hala adierazten denean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak deialdi horretarako diseinatutako ereduetan egingo dira eskaerak eta hari eskatzen diren agiri osagarri guztiak erantsiko zaizkio. Eskaera ereduak eskura egongo dira aipatutako zuzendaritzan eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian.

5.3. Deialdi bakoitzean zehaztutakoa izango da eskaerak aurkezteko epea, eta ez da izango hamabost egun natural baino gutxiago, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.4. Aurkeztutako eskaerekin batera ez badira aurkezten eskatutako agiriak edo emandako informazioa nahikoa ez dela uste bada, 10 egun baliodun izango ditu pertsona fisiko edo juridiko interesdunak eskatzen zaizkion agiriak aurkezteko. Eskatutako agiriak ez badira bidaltzen arestian adierazitako epean, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta, beraz, laguntza ukatuko zaio.

5.5. Eskaera bat behar bezala betetzat joko da, baldin eta eskaera inprimakietan eskatutako agiri guztiak erantsi bazaizkio eta proiektuaren edo jardueren gaineko informazioa nahikoa bada, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren iritziz, hura aztertu eta ebaluatu ahal izateko.

5.6. Jakinarazpenetarako, instrukzio organoak eskaeran jasotako egoitza erabiliko du. Eskatzailearen zeregina izango da zuzendaritzari berariaz ematea datuetan egondako edozein aldaketaren berri, batik bat haren banku kontuko datuei buruzko aldaketa egon bada.

5.7. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du bai oinarri orokor hauetan bai kasuan kasuko oinarri espezifikotik ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5.8. Behar beste informazio eskatu ahalko dio instrukzio organoak eskatzaileari, emandako datuak egiaztatzeko, laguntza emateko edozein izapidetze fasetan, bai eta diruz laguntzeko proiektu edo jarduketari buruzko behar beste dokumentazio osagarri ere.

#### **6. Organo eskudunak eta ebazpena dirulaguntza emateko prozeduran**

6.1. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua izango da instrukzio organoa, eta behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz.

6.2. Norgehiagoka denean dirulaguntza emateko prozedura, gutxienez hiru pertsonak osatutako Balorazio Batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak. Deialdietan zehaztuko da hura nola eratuko den. Instrukzio organoak organo eskumendunari proposatuko dio ezets daitezela deialdian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten eskaerak.

Balorazio Batzordeak aurkeztutako proiektu edo jardueren eskaerak baloratuko ditu, laguntzen gaineko deialdi bakoitzean ezarritako irizpideei jarraikiz, eta haien arteko lehentasuna ezarriko du. Lehentasun hori oinarri hartuta, eskatutako proiektu edo jarduera bakoitzeko, adjudikazioak proposatuko dira, aipatutako irizpide horiek aplikatu ondoren, baloraziorik onena lortu dutenentzat, deialdian zehaztutako mugarekin, eskuragarri dagoen kredituaren barruan. Muga hori gainditu ondoren, eskatutako proiektu edo jarduerak ukatzeko proposamena egingo da, deialdietan ezarritako helburu eta betekizun orokorretara egokitu ahal badira ere.

Eskuragarri dagoen aurrekontua agortzen duten puntuazioen azken tarteari dagozkion adjudikazio proposamenak eskuragarri dagoen gerakina hainbanatuz egingo dira, diruz lagun daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzaren dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuaren arabera.

Balorazio Batzordeak, dirulaguntza jasoko duten proiektu edo jardunak proposatzeaz gain, berariaz adierazi beharko du, hala badagokio, gainerako eskaerak ezesten direla.

Balorazio Batzordeak balorazioaren emaitzak bidaliko dizkio instrukzio organoari, ebazpen proposamena egin dezan.

Halaber, eta aplikatzen bada deialdian eta erabil daitekeen aurrekontua agortzen duten puntuazioaren azken tarteko adjudikazio hainbanatuetan ezartzen diren dirulaguntza mugetako bat, pertsona edo entitate onuradunari eskatu ahalko zaio berriz egin dezala eskaera; horrez gain, gastu diruz lagungarria murriztu ahalko da, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, baina horretarako beharrezkoa izango da dirulaguntzaren xedea betetzea, bai eta murrizketa hori bat etortzea ere justifikatu beharreko gastu diruz lagungarriaren gutxieneko zenbatekoarekin (zenbateko hori kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: emandako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntzaren ehunekoa).

6.3. Lehia askea denean dirulaguntza emateko prozedura, eskaerak jaso ahala banatuko dira funtsak, sarrera erregistroko lehentasunezko ordena oinarri, harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte eta baldin eta deialdian ezarritako betekizunak betetzen badira. Aurkeztutako dokumentazioa osagabea bada eskatzaileak eskatutako dokumentazio osoa aurkezten duen data izango da aurkezpenarena.

Aurrekontu zuzkidurez hornitutakoan, Arabako Foru Aldundiak ebazpena emango du deialdian erabilgarri dagoen aurrekontua agortutzat joz. Erabilgarri dagoen kredituaren zenbatekoa agortzen den unearen ondoren jasotako eskaerak erreserbako eskaeren zerrenda batean geratuko dira.

6.4. Organo eskudunak ebazpena emango du, eta behar diren betekizunak edo baldintzak ezarriko ditu. Ebazpenean, positiboa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zenbatekoa emateko baldintzak ere.

6.5. Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango, baldin eta interesdunek aurkeztutako egitateak eta alegazioak baino ez badira agertzen prozeduran eta haiek baino ez badira kontuan hartzen; hala gertatuz gero, egindako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

6.6. Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera jakinaraziko dira ebazpenak.

6.7. Oro har, eskaera ezetsizat joko da ez bada berariazko ebazpenik eman 11/2016 Foru Arauak 23.4. artikuluan ebazpena emateko eta jakinarazteko ezartzen duen 6 hilabeteko gehieneko epea igarotakoan, deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita.

6.8. Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean onuradunak hari berariaz uko egiten ez badio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzetan onartu dela ulertuko da.

Onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza puntuazio hurrenkerako hurrengo eskatzaile edo eskatzaileei ematea erabaki ahalko du dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdi bat egin beharrik gabe, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

– Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu itxierako arauak ahalbidetzen badute aldi batez esleitu eta egitea diruz lagundutako jarduera.

– Nahikoa kreditu egoten bada ukatutako eskaeraren bati, behintzat, erantzuteko.

6.9. Organo eskudunaren ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 124. artikuluan ezarritakoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan jakinarazpena egin ondoko bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorritz.

## **7. Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta zenbateko banakatua**

7.1. Deialdian, eskaintzen diren dirulaguntzetarako gehieneko zenbatekoa zein den zehaztuko da, bai eta zenbateko hori aurrekontuko zein partiden kontura den ere.

Zenbateko hori ehuneko batean handitu ahalko da baldin eta hala jasotzen badu deialdiak, aurrekontu transferentzien bidez, eta betiere Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinak egon behar dira.

7.2. Deialdi batean zenbait dirulaguntza lerro daudenean, dirulaguntza ematen duen organoari ematen zaio ahalmena, Balorazio Batzordeak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza lerro bakoitzari esleitutako funtsak berriro banatu ahal izateko, baina, betiere, deialdiaren aurrekontu osoa errespetatu beharko da.

7.3. Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko, eskatzaileak aurkeztutako proiektu edo jarduera bakoitzerako zenbatetsitako kostua hartuko da oinarri, eta, hartatik, deialdiaren baldintzetara egokitzen ez diren edo deialdiaren helburuetara behar besteko mailan egokitzen ez diren partidak kenduko dira; hori guztia, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren irizpenen arabera. Horrela, diruz lagun daitekeen aurrekontua lortuko da. Dirulaguntza kalkulatzeko, dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuari Balorazio Batzordeak zehaztutako dirulaguntzaren ehunekoa aplikatuko zaio, baita aurreko paragrafoan aipatzen diren gehieneko mugak ere.

Halaber, deialdi bakoitzean finkatu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatuko zaizkien dirulaguntza ehunekoak, adjudikatu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

Salbuespenez, deialdietan hala aurreikusten bada, onartu ahal izango da pertsona fisiko edo juridiko onuradunen artean hainbanatzeko aukera, eskatutakoaren eta dirulaguntzarako jarritako gehieneko zenbateko osoaren arteko gaindikinari dagokion ehunekoan.

7.4. Laguntzen eraginkortasuna bermatze aldera, deialdi bakoitzean gutxienezko dirulaguntza zenbateko bat edo diruz lagundu daitekeen aurrekontu zenbateko bat finkatu ahal izango da, nahitaez lortu beharko dena proiektu edo jardun bakoitzeko, haiek dirulaguntza jaso dezaten.

7.5. Halaber, eta laguntzak onuradun gehiagorengana irits daitezen, deialdi bakoitzean aurrekontu mugak ezarri ahal izango dira jarduketa edo gastu zehatzetarako, baina muga horiek ez dute galarazi behar laguntzen eraginkortasuna.

7.6. Dirulaguntzak moduluen bitartez emateko edo justifikatzeko araubidea aurreikusi ahal izango da dirulaguntzen oinarri arautzaileetan, honako baldintza hauek betetzen direnean:

a) Diruz lagundu daitekeen jarduera edo hura egiteko behar diren baliabideak unitate fisikoen bidez neurtu ahal izatea.

b) Diruz lagundu daitekeen jarduerak edo, kasua bada, erabili beharreko baliabideek merkatuan duten balioaren froga edo erreferentzia egotea.

c) Moduluen zenbateko unitarioa, zeinak zati finko bat eta beste zati aldakor bat eduki ahal izango baititu jarduera mailaren arabera, txosten tekniko arrazoitu batean oinarrituta zehaztea; txosten horretan jasoko dira modulua zehazteko kontuan hartu diren aldagai teknikoak, ekonomikoak eta finantzarioak, dirulaguntzaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko merkatuko batez besteko balio zenbatetsiak oinarri harturik.

Oinarri arautzaileetan dirulaguntzak moduluen bidez emateko eta justifikatzeko araubidea aurreikusten bada, deialdi bakoitzean berariaz zehaztu ahal izango dira moduluak eta, halaber, txosten tekniko bana egin ahal izango da.

### **8. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

8.1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epearen barruan egiten direnak.

8.2. Dirulaguntzaren xedea kontuan izanda, dirulaguntzaren onuradunen zeharkako gastuen zenbateko bat ezarri ahal da deialdi bakoitzean, eta gastuok diruz lagundu ahal izango dira, justifikatzeko beharrik izan gabe, laguntza deialdi bakoitzean zehazten den moduan.

8.3. Diruz lagun daitezkeen proiektu, jarduera, gastu edo ordainketak egiteko epea deialdi bakoitzean zehaztuko da.

8.4. Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa sektore publikoko kontratuak arautzen dituen araudian kontratu txikiari buruz ezarritako zenbatekoak baino gehiago bada, onuradunak gutxienez hiru pertsona fisiko edo juridiko hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen, kasu hauetan izan ezik: diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziak direla eta, merkatuan ez dagoenean ondasun edo zerbitzu hori egiten edo ematen duen pertsona nahikorik; dirulaguntza eskatu aurretik gastua eginda dagoenean.



Aurkeztutako eskaintzak dirulaguntzaren eskaeran azaldu beharko dira. Haien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik onena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

8.5. Deialdietan azpikontratatzeko aukera eta azpikontratazioen mugak ezarriko dira, eta, betiere, Dirulaguntzen Legean, haren araudian eta Dirulaguntzen Foru Arauan ezarritako betekizunak eta debekuak errespetatuko dira.

8.6. Gastu hauek inola ere ezingo dira diruz lagundu:

- a) Bankuko kontuen interes zordunak.
- b) Interesak, errekarquak eta administrazio eta zigor zehapenak.
- c) Prozedura judizialako gastuak.

8.7. Zergak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, dirulaguntzaren onuradunak egiaz ordaintzen dituenen.

Ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

### **9. Justifikatzeko epea eta modua**

9.1. Emandako dirulaguntzak justifikatzeko, pertsona fisiko eta juridiko onuradunek egiaztatu egin beharko dute ezarritako baldintzak bete izana, bai eta egindako jardueren kostua eta hura finantzatzeko gainerako diru sarrerak ere.

Egiaztagiri horiek aurkezteko epeak, tokiak eta moduak deialdietan ezarriko dira, eta Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrera zein hitzartutako udaletako erregistroetara eramanda aurkeztu ahalgo dira, baita modu elektronikoan ere Erregistro Elektronikora jota, egoitza elektronikoaren bidez.

Arau orokor gisa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen erregelamenduaren 72. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diruz lagundutako jarduera edo jardueren memoria bat, justifikatuz dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, eta adierazita zeintzuk diren egindako ekintzak eta lortutako emaitzak. Baldin eta diruz lagundutako jardueran pertsonen parte hartzen badute, sexu aldagarria erantsi beharko da memorian emandako informazioan, baldin eta informazio hori izateko modua badago.

b) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

c) Jardueraren gastuen edo inbertsioen sailkapen zerrenda. Hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziko dira. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

d) Aipatutako zerrendan jasotako fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga balioa duten agiriak, eta haien ordaindu izanaren egiaztagirak. Jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak onartu ahal izango dira, deialdian salbuespen gisa beste justifikazio bideren bat zehazten denean izan ezik.

e) Gastuen zerrendan sartutako gastu orokorrak edo zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, hala badagokio, 8.2 apartatuan aipatutakoari jarraiki, salbu eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan honenbesteko prezioaren bidezko konpentsazioa aurreikusi bada, justifikatzeko beharizanik gabe.

f) Halaber, gastu diruz lagungarriaren zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruzko arauetan kontratu txikiatarako finkatutako zenbatekoak baino handiagoa bada, onuradunak eskatu behar dituen hiru aurrekontuak aurkeztu beharko dira.

g) Hala behar denean, aplikatu ez diren geldikinak eta haietatik sortutako interesak itzultzeko ordainketa gutuna.

9.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, deialdietan justifikazio kontuaren eredu sinplifikatuak ezarri ahal izango dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegiaren 75. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz. Honako hauek jasoko dira justifikazio kontu sinplifikatuan:

1. Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan, pertsona hartzekoduna, gastuen agiri edo ordainagiriaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data identifikatu behar dira. Deialdi bakoitzaren oinarrietan zehaztuko da zein zenbatekotatik aurrera aurkeztu beharko diren, banan-banan edo gastu kontzeptu berekoak batera, fakturak edo dokumentu baliokideak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak) eta dagozkien ordainketa agiriak. Dena dela, dokumentu horiek aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiak eskatuz gero.

3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta haieztatik eratorritako interesena ere.

Instrukzio organoak egoki irizitako frogagiri guztiak egiaztatuko ditu, deialdian erabakitako laginketa tekniken bitartez, dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko. Horretarako, hautatzen dituen gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

9.3. Baldin eta onuradunaren langileek egin badute diruz lagundu beharreko jarduketa, langileen kostuak frogatzeko agiriak, bai eta, hala badagokio, proiektuari atxikitako materialen kostuaren gainekoak ere, aurkeztu beharko dira, deialdiak zehazten duen eran. Onuradunaren kontura ordaindutako ordainsarien eta Gizarte Segurantzaren kostuak sartu ahalko dira langileen kostuen barruan.

Fakturak, soldaten kostuak eta Gizarte Segurantzaren kostuak ordaindu izana frogatzeko modua deialdietan zehaztuko da.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea kasuan kasuko indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa ez hortik gorakoa (edo haren kontrabalioa atzerriko monetetan).

Eskatutako agirien artean fakturak edo gastuak justifikatzeko bestelako agiriak egonez gero, haiek jatorrizkoak izan beharko dute, edo, bestela, konpultsatutako fotokopiak, eta haien zenbatekoa, gutxienez, diruz lagundu daitekeen aurrekontuarena izango da. Faktura horiek behar bezala eginda egon beharko dira, berariazko zerga araudiarekin bat etorritz. Langileen gastuen eta, hala badagokio, profesionalen egindako fakturen kasuan, gastuen frogagiri gisa aurkeztutako nominetan edota fakturretan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura atxikitako zenbatekoak sartu direla frogatu beharko da.

Era berean, baldin eta laguntzen frogagiriak modu elektronikoa aurkezten badira Erregistro Elektronikoa, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legeak 2.1 artikuluan jasoriko edozein subjektuaren gainerako erregistro elektronikoen bidez, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, jatorrizko frogagiriak gordailututa egoteari buruzkoa, eta adierazpenean jasota egon beharko da emaniko laguntzaren frogagiriak (gastu eta ordainketa agiriak) bat datozela fidelki jatorrizko agiriarekin, zeinak gordailututa egongo baitira pertsona fisiko edo juridikoaren legezko egoitzan. Adierazpen hori kasuan kasuko legezko arduradunak sinatu beharko du.

Instrukzio organoak egoki irizitako frogagiri guztiak egiaztatuko ditu, deialdian erabakitako laginketa tekniken bitartez. Horretarako, frogagiri horiek eskatu ahal izango dizkie onuradunei.



9.4. Justifikazioa ezarritako moduan eta epean aurkeztu beharko da, ezinbestez, onuradunaren aldeko ordainketaren obligazioa aitortu ahal izateko edo ordaindu ahal izateko, salbu eta gastu aurreratuak baimendutako kasuetan.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, proportzionalki, eta dagokion zenbatekoa baliogabetu egingo da.

Baldin eta justifikazioa ez bada aurkezten adierazitako epe eta baldintzetan, dirulaguntza onetsirako eskubidea galdu edo hura gutxitu ahalko da, eta egokitzen diren diru kopuruak baliogabetuko dira; gainera, Dirulaguntzen Legean ezarritakoaren arabera onuradunari egotz dakizkiokeen gainerako erantzukizun eta zehazpenak ezarri ahalko dira. Edonola ere, dirulaguntza ematen duen organoak justifikazioa aurkezteko epealdia luzatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan besterik ezarri ezean, baina baldintza batzuk egongo dira: luzapenaren iraupena ezin da izan epealdiaren erdia baino luzeagoa eta luzapenak ezin die kalterik egin hirugarrenen eskubideei. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoak dira luzapena onartzeko baldintzak eta prozedura.

Behar besteko justifikaziorik ezaren kasuan zein erabateko justifikaziorik ezaren kasuan, bidezkoa bada, ordainketa aurreratuaren kontzeptuan jasotako zenbatekoak itzultzeko espediente hasiko da.

9.5. Oinarri arautzaileek moduluen araubidea aurreikusten dutenean, honako agiri hauek aurkeztuko dira dirulaguntza justifikatzeko:

1. Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Justifikazio memoria ekonomikoa. Gutxienez, atal hauek edukiko ditu:

a) Modulutzat jotzen diren unitate fisikoen kopuruari buruzko egiaztapena edo, halakorik ezean, onuradunaren aitopena.

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa, jardun memorian kuantifikatutako jardueretan eta oinarri arautzaileek edo, kasua bada, deialdiaren aginduek aurreikusitako moduluetan oinarriturik kalkulatu.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Halako kasuetan, onuradunek ez dituzte liburuak, erregistroak eta kontabilitaterako edo merkataritzarako garrantzia duten agiriak aurkeztu beharrik izango, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan berariaz kontrakorik ezarri ezean.

## 10. Ordainketak

10.1. Arau orokor gisa, dirulaguntza ordaindu aurretik onuradunak frogatu egin beharko du dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera deialdi bakoitzean ezarritako moduan egin duela.

10.2. Edonola ere, deialdietan jaso ahalko da aukera dagoela ordainketa aurreratuak egiteko, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntza eta Transferentzien Foru Arauaren artikulatua ezarritakoaren arabera. Ordainketa aurreratu horiek eragingo dute funtsak ematea justifikazioa aurkeztu aurretik, dirulaguntzarekin berez doazen jarduerak egiteko ezinbesteko finantzaketa iturri gisa, eta ordainketa hori justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da. Ez da onartuko dirulaguntza berrien konturako aurrerakinik ordaintzea, onuradunak ez baditu ezarritako epean justifikatu edozein laguntza lerrotan jaso dituen beste aurrerakinak, halakorik bada.

Oinarri arautzaileek konturako edo aurreratutako ordainketak egiteko aukera aurreikusten dutenean, emandako funtsen bermeen araubidea ezarri ahal izango da.

10.3. Deialdi bakoitzean ezarritako epean eta moduan adieraziko da dirulaguntza ordaintzeko beharra eta haren ordainketa; hala badagokio, aurreko paragrafoan aipatutako aurrerakin horien kenketa aplikatuko da eta haiek justifikatuztat joko dira, baldin eta behar bezala dokumentatu badira.

10.4. Ezingo da ordainketa egin, harik eta onuradunak Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan arte.

### **11. Dirulaguntza aldatzea**

11.1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak, emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, eta dirulaguntzaren zati bat itzultzea. Dirulaguntza onetsi eta gero, hura emateko zio izan ziren egitatezko inguruabarrak aldatzen badira, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak, onuradunaren proposamen arrazoitua aztertuta, aldatu egin dezake dirulaguntza, kasuan kasuko foru aginduaren bidez.

11.2. Aurreko paragrafoan azaldutako inguruabarrak ez jakinaraztea dirulaguntza galtzeko arrazoa izan ahalko da.

### **12. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna**

12.1. Deialdietan dirulaguntzen aldiberekotasun eta bateragarritasun araubidea ezarriko da.

12.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari. Hark eman den dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposa dezake.

12.3. Enpresentzako deialdietan, Europako Batzordearen unean uneko indarreko erregelamenduetan ezarritako "minimis" arauak errespetatuko dira.

12.4. Deialdian dirulaguntzak beste pertsona edo erakunde batzuek emandako dirulaguntzekin bateragarriak direla zehaztuz gero, dirulaguntza ematen duten beste pertsona edo erakunde publiko zein pribaturen laguntzen zenbatekoak edo beste edozein diru sarrerak ezingo du diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren kostua gaingitu. Deialdi bakoitzean ezarriko dira garapena eta mugak.

12.5. Dirulaguntza eskatzen duenak aurretik beste bat jaso baldin badu, bateraezina dena, eta helburu bererako, hala adierazi beharko da eskaeran. Kasu horretan, emakida ebazpenak bere ondorioak baldintzatu beharko ditu onuradunak aurretik jasotako dirulaguntzei uko egitera, bai eta, hala badagokio, jasotako diru publikoa itzultzera ere.

12.6. Dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzultzeko eskatu beharko da, baldin eta Arabako Foru Aldundiak badaki onuradun batek beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela, emandakoarekin bateraezina direnak, eta ez diela behar bezala uko egin. Horrez gain, modu berdinean jokatuko da, baldin eta gainfinantzaketa egoten bada edo dirulaguntza guztiek, nahiz eta bateragarriak izan, kostua gaingitzen badute.

### **13. Babesak**

Deialdi bakoitzean, Arabako Foru Aldundiaren babesa eta dirulaguntza zehazteko beharra ezarri ahalko da, bai eta dirulaguntza aldi berean finantzatzen duen edozein Europako funts zehazteko beharra ere, eta haiek irudi korporatiboaren eta protokoloaren gainean ezarritako oharretara egokituko dira.

Dirulaguntza jasotzen duen entitateak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du jaulkitako agiri guztietan, eta horretarako, ez da estereotipo sexistarik erabiliko.

#### 14. Dirulaguntza itzultzea

14.1. Jasotako diru kopuruak itzuli egin beharko dira arau hauek ezarritako kasuetan: Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua.

14.2. Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko diru sarrerak izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

#### 15. Egiaptapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatu titularrak hurrengo deialdiak eta, hala badagokio, oinarri hauek garatzeko egokiak iruditzen zaizkion ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetuko duen unitate organikoak hala eskatuta, eta ekintzak gauzatu ditzake, onuradunak emandako datuak eskatzeko nahiz horiek benetakoak direla eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen dela egiaztatzeko. Horretarako, pertsona edo erakunde onuradunak behartuta daude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Garapenaren Zuzendaritzak jardueri buruz eskatzen dizkien datu eta agiriak ematera. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

#### 16. Erantzukizunak

Onuradunek beren gain hartzen dute programa edo jarduera egiteko erantzukizuna, bai eta hura garatzeko indarrean dagoen legeriak galdatzen dituen baimenak eskatzea ere.

#### 17. Datu pertsonalak babestea

17.1. Indarrean dagoen araudia betez, laguntzen onuradunei edo ordezkariari buruzko datu pertsonalak fitxategi misto batean jasoko dira, foru aldundi honek esleiturik dauzkan eskumenen alorreko kudeaketa lanak eta eginkizunak gauzatzeko. Aurretik, Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroari emango zaio haien berri; fitxategi horrek horrelako datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezko segurtasun neurriak ditu. Era berean, datu pertsonal horiek ez zaizkie emango hirugarrenei, legeak ezarritako kasuetan izan ezik.

17.2. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa indargabetzen du) datuak eskuratzeko, ezerezteko eta zuzentzeko eskubideak aitortzen ditu; haiei buruz kontsulta edo azalpenen bat egin nahi bada, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora (Probintzia plaza 5, 01001 - Gasteiz, Araba) jo beharko da.

17.3. Interesdunak datu horiek fitxategian sartzen ez uzteko eskubidea erabiltzen badu, ez du jasoko dirulaguntzarik.

#### 18. Ez betetzea

18.1. Baldin pertsona edo erakunde onuradunek laguntza deialdietan eta oinarri orokor hauetan araututako baldintzaren bat betetzen ez badute, dirulaguntza baliogabetu egin daiteke, eta dirulaguntza dagoeneko ordainduta badago, erakundeak nahitaez dirulaguntza hori itzuli egin beharko du, indarrean dagoen legearekin bat etorritik, Foru Aldundiak zehaztutako eran.

18.2. Arabako Foru Aldundiak lege akzio egokiak gauzatu ahalko ditu dekretu honetan xedatutako laguntzei buruzko administrazio ebazpenetan ezarritakoaren ez betetze larriak gertatzen badira, edota ziurtagiri eta aitopen faltsuak aurkeztuz gero.

#### 19. Enpresen deslokalizazioa

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduaren 43., 44., 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira, non enpresen deslokalizazioa aipatzen baita.

**20. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak ebartziko ditu.

**21. Aplikatzekoa den araudia**

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauexek arautuko dute: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araubide Ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontua arautzen duen foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gaienerako arauak.

**22. Oinarri hauei aurkeztu dakiekeen errekurtsoak**

Oinarri hauek eta haien ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu ahalko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

**23. Indarrean jartzea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.